

IES SATURNINO DE LA PEÑA BHI - 2. batxilergoa

BALIO-PROPOSAMENA

Balio-proposamena enpresa edo marka bat bere lehiakideengandik bereizten duen ezaugarria da, bezeroek benetako abantaila gisa ikusten dutena.

Gure kasuan, neurri erabat pertsonalizatuetan lan egiten dugu. Etxe txikietan bizi diren bezeroak gurekin harremanetan jartzen direnean, gure aplikazioaren bidez etxebizitzaren espazio erabilgarria neurtu dezakegu, haietako bakoitzaren gustu eta beharretara egokitutako altzariak sortzeko. Aplikazio horri esker, erantzun azkarra eta eroso eskaintzen diegu bai tokiko bezeroei, bai urrun bizi direnei.

Bezeroei etxez etxeko entrega-zerbitzua ere eskaintzen diegu; hau da, erosketaren ostean altzariak haien etxera eramateko aukera, kostu gehigarri baten truke.

Azkenik, gure establezimenduan egindako erosketek hiru urteko bermea dute.

Gure diseinu baten adibidea ikus daiteke jarraian: lehenengo irudian ohea hormaren kontra tolestuta dago, horrela espazioa aurreztuko dugu beste gauza batzuetarako erabiltzeko. Bigarrenean, ohea jaitsi ondoren, prest egongo da lo egiteko.



